

DBH_Ikasgaia_PROGRAMAZIO LABURPENA													
Irakaslea	Maite Larretxea Zilbeti eta Xabier Olazabal Etxegia		Maila	DBH1			Ikasturtea	2021-22					
IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN													
<p>Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak Kontingentzia Plana izena daraman dokumentuan azaltzen dira.</p> <p>Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.</p> <p>Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.</p> <p>Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.</p> <p>Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.</p> <p>Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko Arreta ez-Presentzialaren Plana.</p> <p>Maila hau lehenengo hezkuntzan ikasitakoaren jarraipena da. Batez ere musika mintzaira, ahotsa, txirula, gorputzaren adierazpena eta perkusio tresnak landuko dira.</p> <p>Irakasgai hau, DBH 1ean derrigorrezkoa da, eta astean bi saio izango ditu. Aurten bost gela daude, eta talde bakoitzean 20 ikasle inguru egongo dira; irakasgaia musika gelan irakatsiko da.</p>													
OINARRIZKO GAITASUNAK						UNITATEAK							
1) Hizkuntza komunikazioa.	1	2	3	4	5	6							
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.	1				5	6							
3) Gaitasun digitala.					5	6							
4) Ikasten ikastea	1	2	3	4	5	6							
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	1	2	3	4	5	6							
6) Ekimena eta ekintzailletza.	1	2	3	4	5	6							
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	1	2	3	4	5	6							
ETAPAKO HELBURU OROKORRAK													
DBH: https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0													

EDUKIAK					
DBH CURRICULUMA					
<ul style="list-style-type: none"> • Interpretazioa eta sormena • Entzutea • Testuinguru musikal eta kulturalak • Musika eta teknologiak 					
DBH1ean <i>Iturrama berdea</i> proiektua garatuko da.					
Skolae:					
DBH1 eta 3 kurtsoetako proiektuei (Iturrama Berdea eta Iturrama Solidarioa) ekarpena zeregin edo proiektu zehatza adieraziz:					
1. DBH-n idatzi beharrekoa: Ikastetxeko Berrikuntza Proiektuen arteko bat da Iturrama Berdea , ikasgai honetan honi lotutako proiektu edo zeregin hau burutzen da: INSTRUMENTUAK SORTU BIRTZIKLATZEKO MATERIALAREKIN.					
Nafarroako Hezkuntza Departamentuko Skolae Berdin Bidean programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude.					
EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK					
DBH CURRICULUMA					
UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA					
1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Ordua k	Unitateak	Ordua k	Unitateak	Ordua k	Unitateak
11	1-Soinua eta pultsazioa. Iraupena	11	3-Sokazko instrumentuak	11	5-Haizezko instrumentuak
11	2-Soinuaren parametroak	11	4-Perkusiozko instrumentuak	11	6-Musika eta zinema
METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK					
DBH1 eta 2 kurtsoetan IK/KI arabera taldekatzean (4naka).					
DBH1 Kurtsoetan IK/KI metodologia erabiltzen dugu taldeak burutzean.					
<ul style="list-style-type: none"> • Alde teorikoa eta praktikoa betiere lotuta joango dira. Musika tresnaren eta ahotsaren teknika ikasteaz gain, partiturak aztertu, eta horien bidez abestiak ikasiko dira. • Partitura lantzean honako ordena jarraituko da: partituran dauden elementuen analisia, abestu notak/hitzak irakurriz, eta, azkenik, musika tresnarekin jo. Ikasteko orduan zatika landuko da, eta zenbait kasutan teklatura, CDak eta baliabide telematikoak erabiliko dira, lagungarri moduan. 					

<ul style="list-style-type: none"> • Gorputzaren koordinazioa, mugimendua eta adierazpena dantzen bidez landuko dira. • Beste alde batetik, ikasleak egunero gauza hauek eramango ditu klasera: Chromebooka, apunteak, partiturak eta agenda. 		
EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA		
<p>Ebaluazio irizpideak berdinak izango dira unitate didaktiko guztietan. Atal teorikoak, %20; atal praktikoak, %30, jarrerak, %40 eta euskararen erabilera 10%</p>		
KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK		
<p>Emaitzan, hiru atal kontuan izango dira. Alde batetik, praktikoa, ariketa praktikoekin. Alde teorikoa, proiektuen eta azterketa idatzien bidez ebaluatuko da, eta jarrera ebaluatzeko, klaseko lana, materiala ekartzea, interesa, parte hartzea, euskararen erabilera eta errespetuz jokatzeko kontuan hartuko dira.</p> <p style="text-align: center;">Proba praktikoak: %30 Proba teorikoak: % 20 Jarrerak: %40</p> <p style="text-align: center;">Euskararen erabilera: %10</p> <p>Positibo bakoitzak ebaluaketan 0,25 irabaztea erakarriko du. Modu berean, negatibo bakoitzak 0,25eko galera suposatuko du ebaluaketa amaieran.</p>		
ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK		
<p>Borobiltzea:</p> <p>Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da. - Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da. <p>Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.</p> <p>Atal bakoitzean, gutxienez 10etik 4 puntu lortu beharko dira, bestela ez baita batez bestekorik egingo.</p> <p>Lan bat ez aurkezteak edo azterketa bat ez egiteak irakasgaia ez gainditzea ekar lezake. Azterketa edo lana ez egitea behar bezala justifikatu behar da, hau da, dagokion irakasleari gurasoek justifikatu beharko diote.</p> <p>Ebaluazioko nota jartzeko borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lehen hamartarra 1, 2, 3, edo 4 bada, unitatea bere horretan mantentzen da. • Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada, unitateari bat gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da. • Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondorengo borobiltze irizpidea. <p>Gutxieneoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Partitura errazak irakurri eta interpretatzea.. • Gorputz adierazpena lantzeko egiten diren dantzetan parte hartzea. • Musika elementuak ezagutzea. • Klasean eskatutako lanak eta ariketak egitea. • Materiala ekartzea. • Klasean jarrera ona izatea. 		

ERREKUPERAZIO SISTEMA		
<p>Kurtso bitartean: Musika arloan, ebaluazioko nota arestian aipatutako lau atal horien batura izango da. Batz besteko nota egiteko, atal guztietan 4 bat eskuratzea ezinbestekoa izango da. Azken ebaluazioko nota ebaluazio guztien batez bestekoa izango da. Ebaluazioa ez jarraitua izango da eta atal bakoitza gainditu beharko da kurtsoa gainditu ahal izateko. Ebaluazio bat suspendituz gero, gainditu gabe geratu den atala hurrengo ebaluazioan gaindituz gero, ebaluazioa gaindituztat emango da. Ikasturte amaieran atalen bat gainditu gabe geratuz gero, nahikotasun proban gainditu lezake. Jarrera suspendituz gero ebaluazio batean, atal hori hurrengo ebaluazioan gainditzea aski izango da.</p> <p>Ezohiko deialdia: Azterketa baten bidez baloratuko da ikasleak gutxieneko jakintza eta gaitasunak eskuratu dituen.</p>		
KANPOKO EBALUAZIOA		
Musika irakasgaien ez da kanpoko frogarik egiten.		